



ABALTZISKETA

SU EGURRA JASOTZEKO DEIALDIA

Abaltzisketako Udaleko hainbat lurretan su egurra aurkitzen da, eta hau jasotzeko deialdia egitea erabaki da.

Su egur hau leku desberdinetan aurkitzen da, beraz, interesa duenak herri langilea den Kepa Etxeberriarekin jarri dadila harremanetan eta berak erakutsiko dizkio lekuak.

Su egurra dagoen lekuak hiru gune dira:

- Arrupe bidean, egur asko dago.
- Aikaten.
- Mikoletako iturria.

Gune hauek hartzen dituenak, egur ona eta txarra, guztia eramateko obligazioa du, eremua erabat garbi geratu behar duelako.

Adjudikatzeko prozedura

Bakoitzak bere eskaintza ekonomikoa egin behar du.

Abenduaren 5erako sobre itxi batetan izen abizenak eta eskeintza aurkeztu behar dira.

Eskeintza handiena egiten duenari adjudikatuko zaio. Eta ondoren, hilabeteko epearen barnean egurrak erretiratu beharko dira.

Abaltzisketan, 2020ko azaroaren 23an.

Udalak

Abaltzisketako Udala. San Juan Enparantza z/g. 20269 Abaltzisketa (Gipuzkoa)

Tel.: 943 65 29 00 – Fax: 943 65 28 75

web orria: www.abaltzisketa.eus. E-mail: udala@abaltzisketa.eus